

NEKAZARITZA BULTZATZEKO EKOIZLE BERRIEI ZUZENDUTAKO DEIALDIA

Astigarragako Udala, udalerrian dagoen Larraburu baserriaren aldamenean dagoen lursail baten jabea da. Sail honen zati batean, bere garaian negutegiak jartzeko agroaldea bat eraiki zen Behemendi Elkartearen laguntzaz. Saila, eremu haundi batean basoz beteriko lursaila dugu baina Hektarea bateko zati batean bestelako nekazal erabilerak ezartzeko aukera ematen du sailak (ikus argazkia jarraian).

Saila guztiz mekanizagarria da eta honek bere aukerak aztertzea bultzatu gaitu. Hasiera batean, baratza ekologikoa edo sagasti ekologikoa jartzeko aukera aurreikusi da, jasotako jendearen eskaerak kontutan izanik.

Egun, Udalak Behemendi Elkarteari utzi dio sail hau, nahiz eta negutegiak dauden saila soilik erabili izan den profesionalki nekazaritza jarduerak bultzatzeko. Lagapena 20 urteetarako egin da.





Lehiaketa hau Behemendi Elkarteak antolatu du eta Astigarraga eta inguruko udalerrietako edonork bere burua aurkeztu aukera izango du. Produktu ekologikoen kontsumoa sustatzea helburu delarik, baratzagintzara bideraturiko proiektuak lehenetsiko dira. lehiaketara aurkezteko epea maiatzaren 15an amaituko da.

Proiektua sailkatzeko garaian ekoiztutako produktuen salmenta modua, sortutako lanpostu kopurua eta ekoizpenaren dibertsifikazioa ere kontutan izango dira.

Lehiaketan aurkeztu nahi duenak Behemendi Elkartean aurkeztu beharko du bere egitasmoa. Informazioa gehiago nahi duenak 943 490 219 telefonora dei egin dezake edo behemendi@behemendi.eus helbide elektronikora zuzendu liteke.

Aukera honetaz gain, Behemendiren eskutik eta eskualdean eskaintza ezberdinak egiten ari dira. Elkarteak bi partzela gehiago egokitzen ari da nekazal jarduerak garatzeko. Kasu honetan 10.000 m²-koak dira bataz beste eta granja moduko ekoizpen extensiboetarako zuzendu nahi ditu (oilaskoak, landareak, mintegiak, ...).

Beste horrenbeste baratzagintza ekologikoa garatzeko asmoz; elkarteak hiru sail gehiago ateratzeko asmoa du 2018ko urtearen zehar. Kasu hauetan moduloak 7.000 eta 10.000 m²-tako sailak izango dira.

Partzela guzti hauek errenta sinboliko baten truke esleituko dira. Nekazaritza suspertzea da helburu eta lanbide egokia izan daitekeela erakutsi. Behemenditik interesatua egon daiteke edonori gurekin harremanetan jartzea animatzen dugu, aipatutako telefonora deituz.